



BERDINEN ARTEKO TUTORETZA (BAT)

Tutore-lanak egingo dituzten ikasleen prestakuntza. 2019ko iraila

HELBURUA

Berdinen Arteko Tutoretza (BAT) planean dagoen moduan, ikastegi bakoitzean tutore-lanak egiteko aukeratutako ikasleek prestakuntza-fase batean parte hartuko dute, honako helburu honekin:

- Tutore-lanak egingo dituzten ikasleengan euren garapen pertsonal, sozial eta profesionalean eragingo duten zeharkako gaitasunak sustatzea: komunikaziorako, harremanetarako, orientaziorako eta lidergorako gizarte-trebetasunak, besteak beste.

Prestakuntza-faseak informazio eta orientazio administratiboa, akademikoa, soziala eta pertsonala bideratzeko beharrezko alderdiak bete beharko ditu. Gainera, proiektuaren helburuei eta gauzatu beharreko eginkizunei buruzko informazioa eman beharko da, eta, bide batez, berdinekin esku hartzeko baliabideak eskaini beharko ditu.

SAIOAK

Xede horrekin, prestakuntza-saioak kanpus bakoitzean egingo dira, 2019ko irailaren lehenengo astean. Guztira 7 ordu iraungo ditu, eta saioak goizez egingo dira 2 egun desberdinetan. Horretaz gain, ikastegi bakoitzaren barne funtzionamenduari buruz eman beharreko informazio-saioaren antolaketa ikastegiaren esku geratuko da, bai datak zehazteko baita planteamendua egiteko ere.

1. Saioa: Esku-hartze metodologia. Unibertsitatea eta haren funtzionamendua ezagutzea.
2. Saioa: Komunikazio-trebetasunak
3. Saioa: Ikastegia eta titulua. Harrera eta orientazioa

EGUTEGIA ETA LEKUAK

- ARABAKO SAIOAK: [Micaela Portilla Ikergunea](#) 0.8 gela
 - 2019ko **irailaren 2a**: Komunikazio-trebetasunak (10:00-13:00)
 - 2019ko **irailaren 3a**: Metodologia eta UPV/EHUko funtzionamendua (10:00-14:00)
- BIZKAIKO SAIOAK: [Liburutegi nagusia](#) Master eta Doktorego Eskolako ikasgela: 7 gela (Leioa)
 - 2019ko **irailaren 4a**: Metodologia eta UPV/EHUko funtzionamendua (10:00-14:00)
 - 2019ko **irailaren 5a**: Komunikazio-trebetasunak (10:00-13:00)
- GIPUZKOAKO SAIOAK: [Elbira Zipitria zentroa](#) 0.03 gela
 - 2019ko **irailaren 4a**: Komunikazio-trebetasunak (10:00-13:00)
 - 2019ko **irailaren 5a**: Metodologia eta UPV/EHUko funtzionamendua (10:00-14:00)



EDUKIA

1. Saioa

METODOLOGIA:

Saio honetan, alde batetik, ikasle tutoreek beren ikastegietan aurkitu ahal dituzten errealitate ezberdinen analisia egiten saiatuko da; era berean, errealitate ezberdin horietan ahalik eta ondoen moldatzeko gomendioak eskainiko dira. Beste alde batetik, Unibertsitatearen eta haren funtzionamenduaren ezagutzara hurbiltzen saiatuko da; horretarako, kasu-metodologia baliatuz, egunerokotasun akademikoan sor daitezkeen kasuak aurkeztuko zaizkie ikasleei. Hauek, beren aurrezagutzak baliatuz, egoeren konponbide posibleak aurkeztu beharko dituzte. Konponbide posibleak aztertu ondoren, helburu nagusia izango da ikasleei erakustea zein arauditan edo dokumentutan topatu ditzaketen irtenbide ofizialak.

ESKU-HARTZEA

Tutore-lanak egingo dituzten ikasleei BAT programaren ezaugarrien berri, unibertsitatean bertan gauzatzen ari diren esperientzien berri eta, azken batean, ikasleekin esku hartzeko prozesuan bete beharko dituzten eginkizunen berri eman behar zaie.

- Tutoretza-plana, tutore-lanak gauzatuko dituzten ikasleen eginkizunak
- Esku hartzeko prozesua eta esperientzia pertsonalak
- Ikasle berrien profila
- Proiektuan parte hartzeak dituen abantailak (aintzatespena)

UNIBERTSITATEA ETA HAREN FUNTZIONAMENDUA EZAGUTZEA

Tutore-lana egingo duten ikasleei tresnak eta informazioa eman behar zaizkie programako esku-hartze arloekin erlacionatutako edukiak ikaskideekin lantzeko.

Arlo akademikoari dagokionez, honako gai hauek landuko dira, besteak beste:

- Tutoretza akademikoen funtzionamendua
- Araudi akademikoak: gestioa, iraupena, kredituen transferentzia...
- Ebaluazio araudia

Kudeaketa-arloan:

- UPV/EHUko egitura eta antolakuntza
- Ikasleen ordezkariak (ikasle kontseiluak, ordezkariak, etab.)
- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak

Administrazio-arloan:

- Idazkaritza eta erregistroa
- Tramiteak: bekak, matrikula, auto-matrikula, konbalidazioak eta leku aldaketak
- UPV/EHUren transmisio-bitarteko eta baliabideak: web-orriak, pantailak, iragarki-taulak, etab.

Zerbitzuen arloan:

- Biblioteka zerbitzua
- Kultura zerbitzua eta kirol zerbitzua



- Ikasleentzako argibide zerbitzua
- Ostatu eta garraio Zerbitzua eta unibertsitateko jangelak
- **Desgaitasunak dituzten ikasleak txertatzea** (Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzuko teknikari bat bertaratuko da campus bakoitzean sentsibilizazioa lantzerako)
- Berdintasunerako zuzendaritza
- Orientazio psikologikoa eta psikosexuala
- Informatika-zerbitzuak (UPV/EHUko posta elektronikoa)

Hizlaria: **Igor Camino**, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakaslea eta 2012/2013 ikasturtetik BAT programaren koordinatzailea ikastegi horretan.

2. Saioa

KOMUNIKAZIO-TREBETASUNAK ETA LIDERGOA

Tutore-lana egingo duten ikasleei erraz aplikatzeko baliabideak eskaini asmoz, ikasleen komunikazio-gaitasunak hobetzeko, eta horrela, jendaurrean eraginkortasunez hitz egiten ikasteko formakuntza-saioa (ikasgelan, hitzaldietan, ikaskideekin, etab.).

Ikastaro moduan antolatutako saio praktikoa da, teoria berehala jartzen da praktikan, ariketen eta egoera errealean simulazioen bidez. Interakzioa bi norabidetan gertatzen da: ikaskideekin eta prestatzailearekin. Ondorioz, ikastaro atsegina eta bizia da.

Ikastaro honetan, jendaurrean eraginkortasunez hitz egiteko kontuan hartu behar diren alderdiak azalduko dira eta, agian, denok geure buruari egin izan dizkiogun galdera erraz batzuei erantzuten zaie:

Mugituko naiz ala geldirik egongo naiz? Entzuleei begiratu behar al diet? Denei? Noiz begiratu behar diet? Eta noiz ez? Eskuak asko mugitzea txarra al da? Eta poltsikoan sartzea? Zenbat informazio helaraz dezaket eraginkortasunez? Nondik hasi behar da hitzaldi bat prestatzen? Eta zer egingo dut zer esan jakin gabe gelditzen banaiz? Nola jardun behar da pertsona gatazkatsuekin?, hau da, hizlari frustratuarekin, errepikakorrarekin, desorekatuarekin, sasijakintsuarekin edo galdera erantzunezinak egiten dituenarekin.

METODOLOGIA:

Saio teoriko-praktikoak. Metodologi dinamiko bat izango da. Teoria praktikarekin osatuko dugu talde lanaren bidez.

Kontsultarako materiala eskainiko da.

KONPROMEZUA:

Hurrengo hiru hilabetetan parte hartzaileei laguntzeko eta tutorizatzeko formatzailearen konpromezua, edozein zalantzari erantzuteko helburuarekin.

Komunikazio eraginkorra. Edukiak

- Beldurretik plazer eszenikora.
- Komunikazio publiko eraginkorraren ezaugarriak.
- Keinuak, begirada, distantzia, ahotsaren ozentasuna, etab.
- Solaskidea ezagutzea eta ulertzea.
- Giza profilak eta liskarren kudeaketa. Enpatia, malgutasuna
- Azken gomendioak ikasgelan parte-hartzea bultzatzeko. Bideratzea, laguntzea eta motibatzea hitza eraginkortasunez hartzeko.
- Ariketa praktikoa, adibide moduan.



- Bibliografia
- Filmografia
- PDFko material osagarria.

Hizlariak: [ADUEEE](#) (Asociación de Debate de la UPV/EHU Eztabaida Elkartea)

3. Saioa

IKASTEGIA ETA TITULUA. HARRERA ETA ORIENTAZIOA

Ikasle-tutore gisa hautatu diren pertsonak Unibertsitate Ikastegietako Harrera eta Orientazio jardunaldietan parte-hartzea bultzatzea beste helburu bat da, eta, gainera, Jardunaldi hauetan landuko den edukia ezagutzea eta 1. mailako kide berriengan lehen hurbiltze bat izatea.

Edukiak ikastegi bakoitzak erabaki eta egokituko ditu, hemen, jarraitu daitezkeen gai batzuk:

- Unibertsitate ikastegien antolamendua
- Instalazioak eta baliabideak. Espazioen erabilerari buruzko araudia
- Ikasketa-plana, tutoretzak, ebaluazioa, araudiak, etab.
- Nahitaezko praktikak eta borondatezko praktikak (Practicuma)
- Truke-programak.
- Komunikazio-bideak, etab.

Hizlaria: Ikastegietako **zuzendaritza-taldeak**

TUTORE-LANAK EGINGO DITUZTEN IKASLEEN EGINKIZUNAK

Lankidetzara eskaintzeko borondatez izena eman duten ikastegiko ikasleen artean aukeraketa egingo da. Titulu bakoitzeko talde/gela bakoitzeko gutxienez ikasle bat aukeratzea da komenigarria; dena den, taldeko bi ikasle izatea da gomendagarriena (ahal dela, mutil bat eta neska bat). Ikasle tutoreek honako eginkizun hauek izango dituzte:

- Prestakuntza-saioetan parte hartzea.
- BAT planeko jardueren garapenean lankidetzara ematea.
- Dokumentu honetan zehaztutako edukiekin lotutako informazioa kideei eskaintzea.
- Ikasleek ikastegiko jardueretan eta kudeaketan parte-hartzea sustatzea.
- Esku-hartzean proposatutako informazio-saioetan parte hartzea.
- Irakasle koordinatzailearekin eta ikasle koordinatzailearekin izango diren koordinazio-bileretan parte hartzea.
- Bileretako jarraipen taulak betetzea eta aurkeztea; jarraian agertzen den informazio hau bildu beharko da: parte-hartzaileak, landutako gaiak, hautemandako arazoak eta egon litezkeen irtenbideak, gorabeherak, ikasleek egindako gomendioak, hobekuntza-iradokizunak, etab.
- Azken txostena osatzeko lanean parte hartzea.



ESKU-HARTZE KRONOGRAMA

Honako koadro honetan, saio bakoitzean landu daitezkeen edukien adibide bat ematen da,

Adibide den heinean, **ikastegi bakoitzak bere egoerara egokituko ditu, gaiak, saio kopuruak zein iraupena.**

KRONOGRAMA-PROPOSAMENA

HILABETEA	LANDU DAITEZKEEN GAIAK
IRAILA URRIA	<ul style="list-style-type: none">- Graduen egitura. Ikasketa-planak, irakasgaiak- Barne- eta kanpo-praktikak- Berdinen arteko tutoretza BAT planaren aurkezpen orokorra- Ikasgelako ordezkariak aukeratzea- Bekak: epeak, betebeharrak, etab.- UPV/EHUren posta elektronikoko korporatiboa. Informatika-zerbitzuak- Irakaskuntza, ebaluazioa eta lanak babesteko plataformak (egela...)- Ikastegiaren antolamendua- Ikastegiko instalazioak. Idazkaritzaren funtzionamendua- Tutoretza akademikoen funtzionamendua
AZAROA	<ul style="list-style-type: none">- Araudi akademikoak: Kudeaketa Araudia eta Iraunkortasunari buruzko Araudia- Ikasleen eskubideak eta betebeharrak- UPV/EHUko web-orria: Informazioa bilatzea- Ikasleen ordezkariak. Ikasle Kontseilua aukeratzea- Ikastegiko Batzarra, Saisetako ordezkariak- Ikasleen ebaluazioa. Zalantzak.- Irakasgai batzuk ebaluatzeko baldintzak (lanak, azterketak...) gainditzeko teknikak eta aholkuak- Ebaluazio-prozedurari eta irizpideei buruzko araudia: iraupena, datak, kalifikatzeko modua, erreklamazioak, etab.
OTSAILA	<ul style="list-style-type: none">- Ebaluazioaren emaitzak- Arazoak eta irtenbideak- Tutoretzetan parte hartzearen garrantzia nabarmentzea- UPV/EHUren antolamendua eta egitura: Organoak, Campusa, Ikastegiak, Sailak, Institutuak, etab.- UPV/EHUren estatutuak: Ikuspegi orokorra
MARTXOA	<ul style="list-style-type: none">- Kirol- eta kultura-jarduerak- Campuseko zerbitzuak: Liburutegia, Orientazioa, Ezintasunak, Psikologia Aplikatua, Berdintasuna, Enplegua, etab.- Unibertsitateko elkarteak- Boluntariora eta garapenerako lankidetzak- Truke-programak- Rixen prozedura (protokoloa)



APIRILA	<ul style="list-style-type: none">- Iraunkortasunari buruzko araudia, deialdiak, lehenengo mailan gainditu beharreko kredituak, etab. nabarmentzea- 2. mailako irakasgaien aurkezpena: edukia, egitura, oinarrizko ezagutzak, irakasleak, ebaluazioa, etab.- Irakasgai batzuk ebaluatzeko baldintzak (lanak, azterketak...) gainditzeko teknikak eta aholkuak- Proiektuaren ebaluazioa. Gogobetetzeari buruzko galdetgia eta hobekuntza-proposamenak
---------	---

WEB ORRI INTERESGARRIAK

- [Hezkuntza eta Kirol Fakultatearen BLOGA](#)
- [Gipuzkoa Ingeniaritza Eskola \(Eibar\)](#)